



FUNTSEZKO ELKARTEAK

Ekintzaileentzat ezinbestekoa da enpresa berria eraikitzeko momentuan beste batzuekin elkartzea, onura ugari ekar ditzake eta.

Alde batetik, guk ez dauzkagun baliabideak baliteke beste erakunde batek edukitzea, eta guk zerbait edukitzea eurentzat onuragarria izan daitekeena. Beraz, akordio batera iritsiz denontzat onuragarria izan liteke elkartzea. Gainera, elkartuz ideia desberdinak suertatu daitezke, eta horiek produktua hobetzen lagundu dezakete, gure kasuan aplikazioa. Horrez gain, ez da guztiz praktikoa enpresa bakar batek jarduera eta lan guztiak kudeatzea, izan ere, arriskuak eta arazoak edukitzeko aukera handiagoa dagoelako eta egin beharreko inbertsioak handiagoak direlako.



Lehenik eta behin, aplikazioaren oinarria garatzeko (mapak egin, erabiltzaileen kontuak kudeatu, zerbitzariak lortu...), jada oso garatua dagoen enpresa batekin elkartzea ideia ona iruditzen zaigu: Google Maps. Aplikazio hau da denok erabiltzen duguna mapan kokatu behar garenean, beraz, mapa ugari eginda dauzkate eta aplikazioa oso erabilerraza da. Haien laguntzaz aplikazioari hasiera bat ematea lortuko genuke, arriskuak asko gutxituz.

Aplikazioak hotel eta albergeak ere erakutsiko dituenek, udaletxeekin kontaktuan jarriko gara udalerrri bakoitzeko alberge eta hotelen zerrenda eskuratzeko, gero horiek aplikazioan txertatzeko. Lehenenengo hiriburuetako udaletxeekin jarriko gara kontaktuan, horietan egongo baitira lo egiteko leku gehien, eta pixkanaka herri txikietara iritsiko gara, ahalik eta hotel eta alberge gehien eduki ditzan gure aplikazioak.

Horrez gain, gure aplikazioa hizkuntza minoritario askotan eskuragarri egongo da, euskaraz adibidez. Euskararen presentzia teknologian oraindik nahiko urria denez, euskara eta teknologia elkartzeaz arduratzen den erakunde batekin bat egingo dugu: Elhuyarrek. Enpresa honek hizkuntza teknologien sail bat du, eta gailuak euskaratzeaz arduratu ohi da. Eurekin elkartuz, gure aplikazioari euskarazko ezaugarriak (aplikazioari



zein mapa dauden euskaraz galdetzea, jendeak igotzen dituen mendi bideen ezaugarriak euskaratzea) gehitzeko aukera edukiko dugu. Bestalde, beste hizkuntzatan ere aplikazioaz gozatzeko aukera egongo da, hala nola, frantsesez, gazteleraz eta ingelesez. Gure aplikazioak hizkuntza horien ezaugarriak edukitzeko, atzerriko hainbat enpresekin elkartu beharko gara.



Gure enpresarentzat lehiakide izan daitezkeen enpresekin bategitea ekidingo dugu momentuz, etorkizuneko arazoak ekidite aldera. Horrela gure konpententziarekiko aurrera pausuak emango ditugu, merkatuan nabarmenduz. Gure enpresaren ideien helburuekin zerikusirik ez duten, baina aldi berean elkarrekin bat egitea bi enpresentzat onuragarria izango den bategiteetan bakarrik oinarrituko gara, kasu horietan denontzat onuragarria izango delako eta ezingo diogu elkarri kalterik egin.

Elhuyarrekin, Google Mapsekin eta beste hainbat erakunde ezagunekin elkartuz, gure bezero kopurua asko handituko da, jendearentzat errazagoa izaten baita jada garatua dagoen eta ezaguna den enpresez eta produktuz fidatzea. Gainera, aliantza horiek aniztasun izugarria emango dio gure aplikazioari: hizkuntza ugari; hotel, alberge eta mendi bide asko... Eta horrek ere bezero asko erakarriko ditu, honelako aplikazioak ez baitira eskuragarri egoten herri txikiak biztanleentzat eta hizkuntza minoritarioen hiztunentzat.